



Aralarko larreak ireki dituzte aurten ere, Larraitzen egindako festan

ABALTZISKETA ▶ 5.000 lagun inguru joan zen atzo Larraitzera; 18.000 ardik, 800 behik eta 600 behorrek pasatuko dute uda Aralarren ▶ 7



Amezketako Anastasio Goitia abeltzainaren behorrek eta zaldiak, Larraitzen, atzo. Animaliak markatu zituen, eta egun batzuk barru igoko ditu mendi larreetara. I. GARCIA



«Zoriontsu egiten nau baratzen lan egiteak»

TOLOSALDEA ▶ Kaxi Izagirre ibartarrak ezin dio baratzen aritzeari utzi. «Jaiotzetik» du lurra lantzeko bokazioa, eta Asteasun dituen lurretan jarduten du. Larunbatero eramaten ditu produktuak Tolosako azokara. I. GARCIA ▶ 6

LEITZA ▶

Urrezko
Aizkolarien
finalerdietan
da Rekondo ▶ 4

TOLOSALDEA ▶

Langileen
Eguneko
mobilizazioak
eskualdean ▶ 4



**BAILARAKO
ESKAINTZARIK
ZABALENA**



ORIXE Bigarren Hezkuntzako Institutua

BATXILERGOA
Teknologia
Natura eta Osasun Zientziak
Gizarte eta Giza Zientziak

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
Natura inguruneke kirol
ekintzen gidaritza

943 65 13 87
E-mail: 012980aa@hezkuntza.net www.orixe.net



Aurrematrikula: Batxilergoa: apirilaren 25etik maiatzaren 6ra / Erdi mailako zikloa: Ekainaren 1etik 8ra

BERTSOLARITZA ▶



Etorkizunerako bertsolariak

«Ikasleen parte-hartzea bertsoen bidez bultzatu» nahi du Ahozkotasuna eta bertsolaritza egitasmoak; Tolosako Laskorainen, Samaniegon eta Hirukiden eta Villabonako Jesusen Bihotzan martxan da

REBEKA CALVO

Bigarren ikasturtea da jada Tolosaldeko ikastetxeetan Ahozkotasuna eta bertsolaritza izeneko egitasmoa aurrera eramane dutena Lehen Hezkuntzako (LH) 4., 5. eta 6. mailako gaztetxoaren artean. Proiektua Tolosako eta Villabonako Udalen eta Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearen arteko hitzarmenaren ondorio da, eta bertan lau zentrok hartzen dute parte: Tolosako Hirukide ikastetxeak, Samaniegok eta Laskorain ikastolak, eta Villabonako Jesusen Bihotza ikastolak. Irakasle, arduradun zein ikasleak «oso gustura» ageri dira emaitzekin. Eta, nork daki, agian etorkizuneko bertsolari handien prestakuntzaren aurrean gaude.

Gaur egun beste modu bateko gazteak omen ditugu gure artean, bizimodu desberdina dute, eta egiten zaizkien kritika

ugarrien artean bakartzeko duten joera nabarmentzen dute adituak. Nahiz eta komunikazioaren aroan egon, sakelako telefonoen erabilerak edota Internetaren zabalkundeak besteekin komunikatzeko garaian gazteak arazoak omen dituzte. Hori diote, behintzat, eta ikastetxeetan ere hau gero eta nabarmenagoa da. «Eseri eta entzun besterik ez dute egiten», diote zentroetako ordezkariak; eta parte-hartzea «gero eta urriagoa» dela gaineratu dute, «hezkuntzan ondorio latzak» dituen joera, hain zuzen ere.

Hau guztia dela eta, Tolosako Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeetan, hau da, Hirukiden, Samaniegon eta Laskorainen jarri zuten abian pasa den urtean Ahozkotasuna eta bertsolaritza egitasmoa. Aurten, hortaz, bigarren esperientzia da, eta guztiak oso kontent ageri dira ondorioekin. Villabonan lehendabiziko urtea da hauxe;

Bertsotzale Elkarteak eskaintza egin zion Udalari, eta hark ikastetxeetara jo zuen. Egun Jesusen Bihotza ikastolako 40 haurrek parte hartzen dute egitasmoan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako neska-mutilak. Eta esperientzia «fruituak ematen» hasi dela diote arduradunek.

Egitasmoak «ahozkotasuna landu» nahi du batez ere, bertsotzaleentzako bultzatzearen gaineratik, Bixente Gorostidi bertsolari, egitasmoaren irakasle eta Gipuzkoako Bertsotzale Elkartearen kidearen hitzetan. «Badakigu oso zaila dela bertsoetan ikastea eta, gainera, bertsoak ez dira guztien gustuko. Beraz, bertsoa erabiltzen dugu lan tresna moduan ahozkotasuna lantzeko», gaineratu du.

«Izan ere, gazteak beste modu batera daude ohituta. Agian gurasoak lanean dituzte eta ordu asko ematen dituzte bakarrik telebistaren edota or-

denagailuaren aurrean, eta hitz egiteko joera, ondorioz, galtzen ari da», dio Gorostidik. Irakasleen kezka hau ikusita, hau da, eskoletan umeek zuten parte-hartze urria zela eta, Bertsotzale Elkarteak proiektu hau jarri zuen abian ikastetxe desberdinekin, eta jokoan eta bertsoaren bidez zentroetan oso emaitza onak izan dituzte.

Umeen ilusioa eta gogoia

Tolosako Laskorain Ikastolako Elixabete Telleria eta Samaniegoko Ana Aierbe ikastetxeetako egitasmoa koordinatzaileak eta Hirukide Jesuitinetako Xabi Gomez eta Juana Mari Altuna irakasleak oso kontent daude esperientziarekin. Euren aburuz, «gauza asko lantzen dituzte ikasleek».

«Bertso bat egitean hizkuntza, ahozkotasuna, hiztegia, memoria eta sormena lantzen dira. Bestalde, entzuten ikasi

behar dute eta baita besteen aurrean abesten ere. Gauza guztietan bezala, alde dago ikasle batetik bestera, baina egia da adin hauetan ideia asko botaten dituztela, sormen handia dutela; hori bai, gero neurtu eta bertsoaren doinura egokitu behar dituzte», azaldu dio HITZARI Telleriak.

Aierbe ados dago honekin: «Arrazoi bat baino gehiago aipatu nahi nituzke. Lehenik, ahozkotasuna lantzeko tresna ezin hobea dela; horrez gain, gure kulturaren zati garrantzitsu baten transmisioa ahalbidetzen duela; kanturako ohitura sostengatzen laguntzen duela eta baita bertso mundua umeengana hurbiltzen duela ere», dio.

Hirukideko Juana Mari Altunarentzat, gainera, umeentzat oso egitasmo interesgarria da. Haietako ere, irakasleentzako, alegia, oso aberasgarritzat jotzen du. «Honen aurretik Jua-

BIXENTE GOROSTIDI
BERTSOLARI ETA IRAKASLEA

«Egitasmo honekin bertsoa erabiltzen dugu lan tresna moduan ikasleekin ahozotasuna lantzeko»

ELIXABETE TELLERIA
LASKORAIN (TOLOSA)

«Hizkuntza, hiztegia, ahozotasuna, memoria eta sormena lantzen dituzte, eta entzuten ikasi behar dute»

ANA AIERBE
SAMANIEGO (TOLOSA)

«Ikasleek pozarren hartu dute doinuak ikasi eta bertsoak ekoizteko gonbita»

J. M. ALTUNA-X. GOMEZ
HIRUKIDE (TOLOSA)

«Gutxinaka-gutxinaka gu ere gero eta bertso hobek egiteko gai gara, umek bezalaxe»

E. EGIZABAL-I. ARANBURU
JESUSEN BIHOTZA (VILLABONA)

«Umek oso motibatuta daude. Gero eta gehiago dira bertsolaritza eskolan izena ematen ari direnak...»



Ekzer-eskuin eta goitik behera, bertsolaritza eskolak jasotzen dituzten Samaniegoko, Jesusen Bihotzako, Hirukideko eta Laskoraingo hainbat ikasle. GIPIZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA

na Mari eta biok ez genuen bertsolaritzaren inguruko jakituria berezirik, eta orain trebezia hartzen ari gara. Gutxinaka-gutxinaka gero eta bertso hobek egiteko gai gara, umek bezalaxe», dio Xabi Gomez lan-kideak.

Izan ere, Bixente Gorostidi bi astez behin joaten da eskolak ematera —haren eta Unai Muñozaren artean banatzen dituzte lau ikastetxeotako saioak—; «aste batean berak ematen ditu eskolak, eta ondorengoan guretzako etxeko-lanak utzi eta guk ematen dugu klasea», dio Gomezek. Beraz, irakasleek ere ikasteko esfortzua egin eta umeen mailan egoteko betebeharra dute: «Ez da erraza, baina ari gara pixkanaka», diote Hirukidekoek.

Aurten, LH 4, 5 eta 6ko ikasleek dute esperientzia hau bizitzeko aukera; izan ere, pasa den urtean alpatutako lehen bi kurtsoetan soilik ematen zen. Ikasleen artean motibazioa da nagusi: «Pozarren hartu dute doinuak ikasi eta bertsoak ekoizteko gonbita. Hitzekin jolasean jardutea ahalbidetzen du proiektuak, eta horrela langintza bera arinago egiten zaie. Era berean, proiektu hau arrakastatua izatea lortu duen beste puntu bat irakaslea bera da», dio Aierbek. Ildo beretik mintzatu da Telleria, irakaslearen lana goraiatzeko baitute bi koordinatzaileek: «Irakaslea bertsoak botatzen hasten denean aho zabalik geratzen dira ikasleak hari begira, asko gustatzen zaie hori».

«Orain bi urte egitasmoa hasi zenean, batzuei ez zitzaien gehiegi gustatu, bertsolaritza ez zuten oso gustuko eta. Baina orain oso kontent daude eskolekin. Askatasun osoa dute, gainera, ez dute presiorik, eta horren baitan teknika batzuk jarraituta bertso ez horren konplikatua egiteko gai direla ikusten dute», dio Altunak.

Eduarne Egizabal eta Iker Aranburu Jesusen Bihotzako irakasle eta egitasmoaren koordinatzaileak ere oso baliagarritzat jo dute ekimena. «Oinarri-oinarritik hasten dira bertsolaritzarekin harremanetan, eta denetik lantzen dute. Umeei asko gustatzen zaie ekimena, oso motibatuta daude. Gero eta gehiago dira bertsolaritza eskolan izena ematen ari dire-

nak...», azaldu dio Hitzari Egizabalek.

Irakasleei ere bertsolaritzan trebatzeko aukera eman die Ahozotasuna eta bertsolaritza egitasmoak: «Astero-astero etortzen da irakaslea eskolak ematera; baina bi gela direnez, txandaka aritzen da batean eta bestean. Hala, beste gelan guk gidatzen dugu taldea. Etxekolanak uzten dizkigu, eta pixkanaka gu ere ari gara mundu honetan murgiltzen».

Jarraitzeko gogoz

Aurtengo emaitzak ikusita, hurrengo urtean ere jarraitzeko gogoz agertu dira Tolosakoak eta Villabonakoak. Guztira, 300dik gora ikasleek dute egitasmo honetan parte hartzeko

aukera. Agian, etorkizuneko bertsolari handien bidea jarraituko du horietako batek baino gehiagok. Bestela ere eskoletan gehiago parte hartuko dute ikasle hauek guztiek.

Egitasmoak berak ere etorkizunari begira jarraitzen du. Ibarrako, Alegiako eta Berastegiko ikastetxeetan ere jarriko dute martxan. «Nahi dute, baina oraingoz ez da posible, ez ditugu-eta behar den jende eta baliabide nahikoak», azaldu dio Hitzari Gorostidik.

Aurrekariak ikusirik, hala ere, badirudi datozen urteetan gero eta gehiago izango direla egitasmoa euren ikastetxeetan abian jarriko dituztenak, eta beharbada aparteko bertsolarien hezkuntzan eragingo dutenak.

LEITZA ▶ AIZKORA

Azken egurrarekin, aurrerako bidea lortu du Rekondo leitzarrak

Atzetik etorkio, Mindegiari aurrea hartu eta 9 segundoko aldea kenduta, Urrezko Aizkolariko finalerdietan dago

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo aizkolarik leitzarra sailkatu da 23 urtez behiko Urrezko Aizkolariko Txapelketako finalerdietarako, Xabier Mindegiari azken egurrean aurrea hartzea lortuta.

Herenegun jokatu zuten txapelketa honetako aurreneko kanporaketa, Zumaian egindako herri kirol jaialdiaren baitan. Leitzarrak Mindegiarekin, Mikel Mindegiaren iloba bera, jokatu zuen norgehiagoka.

Apustu polita jokatu zuten bi gazteek. Hasierako lanetan oso alde tiikia egokitu zen bi aizkolarien artean. 45 ontzakoak zeinek azkarren ebaki zuten lehendabiziko lana. Honetan, segundoko bat azkarxeago jo zuen labaindarrak bukaerako aizkorakada, 56 segundotan. Baina jarraian, zeinek kolpe gutxie-

nean ebaki beharreko 45 ontzako enborra leitzarrak ebaki zuen gutxiagotan, 40 kolpetan, arerioak baino justu bat gutxiagoan. Lan honetan, kolpeak segundoeikin baliokidetu zituzten sailkapenerako, nahiz eta denbora gehiago igaro zuten, noski, lan honetan, kolpea non eman pentsatuz eta indarririk

handienarekin aritu zirelako biak hala biak. Lan honen bukaeran, beraz, leitzarrak labaindarrari zuen segundoko bakarreko aldea jan ziolarik, berdindu zeuden.

Hurrena, 60 ontzakoaren txandan, Malerrekako gaztea gailendu zen, 2 minutu eta 36 segundotan enborra ebakiz, eta Rekondori 4 segundoko aldea kenduz. Leitzarrari aizkora-kiderra hautsi zitzaion eta erreminta aldatzen joan zitzaion denbora, bestela aurretik zihoa. Horrela ekin zioten beren eguneko lan luzeari, hots, bina 45 ontzako eta beste bina kana-erdiko (54 ontzako) ebakitzeari; leitzarrak 4 segundoko koska jan beharra zion Mindegiari, sailkatuz gero.

Eta halaxe egin zuen. Apustuari buelta ematea lortu zuen Rekondok, koska jan eta 9 segundoko aldea ateraz, gainera,

baina azkeneko enborrean; izan ere, ordura arte, atzetik joan zen leitzarra: hiru enborrak aurretik bota zituen Mindegiak eta 5 bat segundoko aldearekin (eta lehendik zekarkien 4ak ere bai) sartu zuen azken 45 ontzako ebakitzera. Laugarren eta azken enborretan erabaki zen auzia: «Hiru enborretan indarrak gordez bezala aritu nintzen, eta azkenekoan jo egin nuen», halaxe kontatu zion HITZARI Rekondok berak, atzo, 8 minutu eta 31 segundotan bukatu zituen lanak, aurkariak baino 13 segundoko lehenago. Tarte hiru azken enborrean atera zion.

Ahalegin baliotsua egin zuen leitzarrak azken txanpan, kanporaketa irabazi eta finalerdietarako pasea lortzeko baliatuz. «Korteeetan ez nuen asmatu, baina bukaera nola atera zen ikusita, gustura», zioen.

TOLOSALDEA ▶ EKONOMIA

Mobilizazioak Langileen Egunean

I. Garcia ▶ Sindikatu guztiek egin zituzten atzo mobilizazioak, Langileen Eguna zela eta. Tolosaldean egindako ekitaldi bakarra LAB sindikatuak burutu zuen, goizean goiz elkartu baitziren bere kideak Tolosako Triangulo plazan, *Euskal Herria libre eta sozialista* lelopean —argazkian—. Ikurrinak eta sindikatuko eta presoek Euskal Herriratzeara eskatzen duten banderak erakutsiz, auto-karabana eginez abiatu ziren Goierri aldera. Urretxun egin zuten, eguerdian, manifestazioa. I. GARCIA



Tolosako Udala

IRAGARKIA

Gobernu Batzarrek, 2006ko apirilaren 10ean egindako bilkuran, honako dokumentu hau tramitean jartzea erabaki du:

EZ.5 "Beotibar kalearen Luzapena" eremuko Barne Erreformatarako Egitasmo Bereziaren Aurrerakina.

Planeamendu Araudiko 147 eta 125 artikuluek xedatutakoaren arabera, aurrerakina HOGETA HAMAR EGUN jendaurrean jarrita egongo da.

Espedientea jendaurrean jartzeko arazoa hau da: korporazio, elkarte eta partikularrek edozein iradokizun edo planeamenduko beste aukera batzuk aurkeztu ahal izatea.

Inagarki hau Gipuzkoako aldirikari ofizialean, Berrin, Tolosaldeko Hitza eta Diario Vascon argitaratuko da.

Epe horrek dirauen bitartean, espedientea ikusi eta aztertu nahi duenak eskura izango du Tolosako Udaltzeko Hirigintzako Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-b), alegazioak Sarnerako Erregistroan aurkeztu behar dira Tolosako alkateari zuzenduta.

Tolosan, 2006ko apirilaren 25ean
ALKATEA

Tolosako Udala

IRAGARKIA

TAILSA-k sustatutako Apatzarrekako industrialdeko H partzelari dagokion Xehetasun Azterketaren behin betiko onarpena.

Udalbatzak 2006ko martxoaren 28an egindako ohizko batzaraldian, TAILSA-k sustatutako Apatzarrekako industrialdeko H partzelari dagokion Xehetasun Azterketaren behin betiko onartzea erabaki zuen.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio bide administratiboari. Haren kontra honako errekursoak jar daitezke:

- Administrazioarekiko auzi errekurtsua Euskal Erkidegoko Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, ebazpen honen iragarkia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik zenbaituta bi hilabeteen barruan.
- Nahibadako Berraztertze Errekurtsua Tolosako Udaleko Plenoaren aurrean eta aurreko atalean aipatu den errekurtsua jarri aurretik, ebazpen honen iragarkia argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epearen barruan.

Tolosan, 2006ko apirilaren 26an.
ALKATEA.

207 berria
Bizi handikoa

Zatoz
ezagutzera

TOLOSA MOTOR, S.A.

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 03 37 • Faxa: 943 65 29 38 • tolosa@tolosa.redpeugeot.com


207



III. HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶

Une ahaztezin horiek...

Irakurle hauek ere parte hartu nahi izan dute lehiaketan; etzi da argazkiak jasotzeko azken eguna



Iñaki Gomez Ara (Tolosa). «Argazki hau Parisen, Sena ibaitik gindoazela aterata dago, apirilaren 14an. Notredam-eko katedralaren ikuspegi ezin hobea ematen digu, eta haren benetako edertasuna azaltzen digu».



Pilar Martija Lopez (Berrobi). Andaluzia aldean (Espainia) igaro ditu bere Aste Santuko oporrak Pilar Martija berrobotarrak. Han ateratako irudi hau bidali du lehiaketara; *Kordobako patioa* jarri dio izenburu.




Maidar Aldazabal Mateo (Tolosa). «Egun batean, Uzturrera joan nintzen eta argazki hau ateratu nuen. Behelainoa zegoen, eta goitik oso polita ikusten zen, itsasoa ematen zuen».



Lydia Hernandez (Villabona). «Guanajuato, Mexikoko independentzia oihuaren hiria. Hain estuak dira kaleak, maitaleak bakoitik bakoira muxukatu ahal direla».



Jon Ijurko (Curtisen dauden hiru emakume presoan sendeene izenean-Ibarra, Azpeitia eta Bilbo). «Opor garaian ere milaka euskaldun Espainia zein Frantziako zorigaitzoko txoko miserabeak bisitatzen ditugu. Euskal presoak etxera!».



Izaro Pikabea. *Argiaren hiria* deitzen diote Parisi. Han izan da oporretan Izaro Pikabea, eta irudi hau bidali du lehiaketarako. «Parisen, Aste Santuetan, Montparnasse dorretik ateratako argazkia da. Bertan Eiffel dorrea eta Elbarrituak (Des Invalides) bereiz ditzazkegu nabarmeki», dio.



Marian Serrano. «Kaixo, lagunok! Hemen bidaltzen dizuet Aste Santuko oporretan ateratako argazkia. Bartzelonako Aquarium-ean egin dago».



Ibon Azpilikueta (Alegia). «Aiako Parke Naturalean ateratu nuen argazki hau Aste Santuetan. Ikusten denez, ez da oso urrun joan behar leku zoragarriak aurkitzeko».



Naiara S. Davila. Oporretako argazki bitxia bidali du Naiarak lehiaketarako. «Nola aldatu den jendea!», dio.



Ainhoa Alkorta (Ibarra). «Santo Domingo de la Calzadan, goizean goiz esnatu eta oilarra kanpandorreen kantari entzun nahi genuen, baina handik pixka batera hasitako euri hotsa bakarrik entzun genuen, trumioez gain».

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGURAK
ETXESAGASTI

Aduna. Bifamiliarra salgai. 150 m² eta 60 m²-ko garajea. Kapritxoz eginiako erreforma. Material ezin hobekak. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Amezketak. Etxea atxikia salgai. Eraiki berria. Informa zaitez! Etxesagasti. 943 69 68 56.
Andoain. Etxebizitza altua,

igogailuarekin salgai. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat berritua. Zonalde oso onean. 44.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. Aukera paregabea! Pisu zoragarria. Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Ezin hobea. 42.700.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 696 856.
Andoain. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Bizitzera sartzeko moduan. Berokuntzarekin. Kanpoaldera. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Legorreta, Berrobi, Baliarrain, Itsasondo eta Albiztur. Egoera oneko baserriak, lursailarekin.

Etxesagasti. 943 69 68 56.
Tolosa. Egongela, sukaldea, 3 logela eta bainugela. Egoera onean. Oso eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Legorreta. Eraiki berria. Egongela handia, sukaldea, bi logela eta 2 bainugela. Trastelekua. 41.500.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.

NEKAZARITZA ▶

Lurra lantzea bokazio denean

Kaxi Izagirrek ezin dio baratzan aritzeari utzi; Asteasuko baratzetik larunbatero eramaten ditu produktuak Tolosara



Kaxi Izagirre, Asteasun duen baratzan. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Lurra lantzeak batzuei erakargarri egiten zaie eta horietako bat da Kaxi Izagirre (Ibarra, 1941). Bere ahizparekin postu bat izaten du larunbateroko azokan Tolosan. Baratza afizio bezala du eta ezin dio utzi lurra lantzeari, benetan gustuko baitu lan hori. Horregatik, baratzan jarduteari dioen maitasun horrek eman dio aukera bere barazkiek hamar alditan jarraian lehenengo saria eskuratzeko Tolosako azokan.

Asteasun ditu lurrak, Ernio mendialdearen ikuspegi ederak eskaintzen dituen paraje batean. Lasartera ezkondu zen eta astean bi egunetan joaten da baratzan lan egitera. Azokaren giroa asko aldatu dela dio: «Amarekin hasi nintzen Tolosara jaisten 12 urte nituela. Orduan 150 dozena porru eramaten genituen, eta denak saltzen ziren. Saltzaile asko izaten ziren, eta baita erosle asko ere. Gazteek ere erosten zituzten produktuak, baina gaur egun ez da horrelakorik gertatzen».

Etorkizun iluna ikusten dio Izagirrek horrelako salmentari: «Gazte gutxi dago erosten eta baita produktuak saltzen ere. Behera doa azoka. Gainera, zuzeneko salmenta egiten dute, hau da, baratzatik produktua atera eta zuzenean saltzen dutenak gutxi daude».

«Lan gogorra»

«Ahal dudan bitartean ez dut utziko baratza». Izagirrek «jaiotzetik» du lurra lantzeko bokazioa. Familian zabaldua dagoen afizioa da: «Ahizpa guztiak aritu gara baratzean». Bokazioa izanagatik ere, ez du esaten erraza denik: «Lan gogorra da. Landareak aldatzea eta gero hazten laguntzea gogorra egiten da. Txikitari ikasi bezala egiten dut, ahal dudan kimika gutxien erabiliz. Lurrari

KAXI IZAGIRRE

NEKAZARIA

«Zoriontsu egiten nau honek. Porruak aldatu eta ikustea nola datozen, poza handia ematen du»

karea bakarrik botatzen diot eta belar txarrak eskuz kentzen dizkiot. Lan asko eskatzen du eskuz egitea. Lurrari ongaria ere botatzen diot».

Baratzako lanari buruz hitz egitean, Izagirrek lurra maite duela nabaritzen da. «Satisfakzioa ematen dit. Zoriontsu egiten nau honek. Porruak aldatu eta ikustea nola datozen, poza handia ematen du». Eta bere lana egiten jartzen duen maitasun hori baloratu egiten dute erosleek. «Lurra lantzeak eta azokara joateak bizia ematen dit. Eta gero ikustea jendeak estimatu egiten duela poztu egiten du».

Garesti saltzen duela ere aipatu diote, eta berak horrela erantzuten du: «Lan asko eskatzen du bai produktuak ateratzea eta baita prestatzea ere. Bizitza zaila dago, eta normala da merkeagoa dena erostea. Baina guk saltzen dugun prezioan saldu behar dugu. Horrela ere ez dugu ia irabazirik lortzen». Behin handizkari batera joanda emandako prezioa gogoratzen du: «Kalabaza eskaini nien eta kilo bakoitzeko 30 zentimo ordainduko zidatela esan zidaten. Prezio horiekin nekazariak ezin du aurrera egin».

Produktuek kalitatezkoak izan behar dutela defendatzen du Izagirrek. «Erosleak ikusi egin behar du zer ari garen jaten. Ez da normala nik porruak euro baten saltzea eta beste batzuk 50 zentimotan. Diferentzia bat egon behar du». Arrazoirik izango du 40 urtetan hutsik egin gabe azokan saltzen aritu denak.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- beheak
TOLOSA
Tel: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-mail: enio@lenio.com
www.lenio.com

Anoeta. Marbxan dagoen taberna-jatebidea alokairuan. Informazio pertsonala.
Alegia. Taberna alokairuan.

Informazio pertsonala.

Alkiza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra salgai. 4 solairu. Bista oso onak.

Amezketza. Etxe atxikia salgai.

Belauntza. Eraikuntza berriko etxe bifamiliarra. 462.780 euro.

Hernalde. Etxe bifamiliari ederra salmentan. Eraikuntza nahiko berria.

Ibarra. Etxe adosatua salmentan. Oso egoera ona.

Ibarra. Garaje ibxi eta irekiak salgai.

Ibarra. 2 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Dena kanpoaldera.

Berokuntzarekin. Bizitzera sartzeko moduan. 210.355 euro.

Ibarra. San Inazio auzoa. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela. 228.385 euro.

Ibarra. Euskalerria kalea.

Oso egoera onean. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela.

Berokuntzarekin.

Irura. 2 logela, egongela-sukaldia, bainugela. Terraza, lorategia eta trastelekuak.

Gabiria. Paraje ederrean, eraikuntza berriko etxe bifamiliarra.

Lregorreta. Eraikuntza nahiko berria. 2 logela eta 2 bainugela. Berokuntza

eta trastelekuarekin.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai. 168.285 eurotik aurrera.

Tolosa. Belate. 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela. 264.450 euro.

Tolosa. Berazubi. 3 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Guztiz kanpoaldera.

Tolosa. Zumalakarregi. 165m2-ko etxebizitza salgai. Trastelekuarekin.

Tolosa. Zumalakarregi. 2 etxebizitza. 92 eta 97 m2. 2 eta 3 logela, sukaldia-egongela, 2 bainugela. Oso bista ederrak. Guztiz berriak.

Estreinatzeak.

Tolosa. Araba etorbidea. 4 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela, 25 m2-ko trastelekuak eta garajeak.

Tolosa. Trinkete. 3 logela, sukaldia, egongela, bainugela. Trastelekuak eta garaje ibxia.

Tolosa. Erdialdean eraikuntza berriko etxebizitza. 3 eta 4 logelekin, terrazak. Sukalde ekipatuak.

Tolosa. San Frantzisko ibilbidean 120 m2ko eraikuntza berriko etxebizitza salgai.

Zizurkil. Etxe atxikia salmentan oso egoera onean.

ZIZURKIL ▶

Hernandorena sarien liburuaren aurkezpena

Maiatza Saltsan kultur eta kirol egitarauaren lehen ekitaldia izango da gaurkoa

ERREDAKZIOA

Maiatza Saltsan kultur eta kirol ekitaldi oparoaren hasiera egingo dute gaur Zizurkilan. Teodoro Hernandorena IV. Ipuin Lehiaketako liburuaren aurkezpena egingo dute Atxulondo kultur etxean, 17:30ean hasita. Iraitz Lizarraga ipuin kontalariak 6-10 urte bitarteko haurrei lehiaketan saritutako ipuinak kontatuko dizkie.

Asteburura begira ere hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Ostiralean, esaterako, Loatzo musika eskolako haurrek emanaldia eskainiko dute, 19:00etan hasita, Atxulondo kultur etxean.

Larunbatean Umeen Eguna egingo dute, Kostata Gazte Asanbladak antolatuta. Joko ugari prestatu dituzte eta arratsaldean *Xurdir Antzerki Musikala* emanaldia ikusteko aukera izango dute In-txaur frontoira joaten direnek, hiru euroren truke.

IBARRA ▶

Festetako soka-dantzarako ikastaroa Alurrekin

ERREDAKZIOA

Aurreko urtean hasitako bidetik jarraituz, Alurr dantza taldekoek, behin ikastaro bat amaituta, beste batekin hasiko dira. Doan izango da eta soka-dantza, arin-arina eta fandangoa ikasteko aukera izango dute nahi dutenek.

Dantza taldearen helburua herri guztia parte hartzera bultzatzea da, adin guztietako emakumezkoak zein gizonenezkoak, gero herriko festetan egingo den soka-dantzan parte hartzeko. Ikastaroa bihar hasiko da, eta hilabete eta erdi iraungo du. Interesatuak Gaztetxearen aurrean dauden Alurreko lokaletara joan beharko dute.

NEKAZARITZA ▶

Aralarko belarraz asetzer

Ohiturarekin jarraituz, Aralarko larreen irekiera burutu zuten atzo Larraitzen

IMANOL GARCIA

Maiatzaren 1arekin, ohitura denez, Aralarko larreen irekiera egin zuten atzo, Enirio-Aralar Mankomunitateak antolatuta. Bederatzigarren aldia da festa antolatzen dutena, eta jendeak, urtero legez, ondo erantzun zuten deialdiari, lainorik gabeko zeruak lagunduta. Bost mila lagun inguru bildu ziren atzo Larraitzera. Errepide bazterretan zeuden auto kopuru izugarria izan zen jendetza-aren adierazgarri nagusia.

18.000 ardi, 800 behi eta 600 behor izango dira Aralarko belarraz asetuko direnak udan zehar. Atzo Larraitzetik abelburu batzuk —behiak eta behorrrak— pasatu ziren larreetarako bidean, baina kopuru nagusienak mankomunitatea osatzen duten herrietatik abiatu ziren. Amezketatik, esaterako. Ondorengo egunetan pixkanaka igoko dituzte buru guztiak. Hilaren 15etik 20era eramango dituzte kopuru handienak, abelburu guztien %90 inguru.

Festa giroan

Amezketako Anastasio Goitia izango da bere behorrrak eta zaldiak igoko dituen abeltzainetako bat. Atzo, baina, animaliak markatu bakarrik egin zituen. «Urtebete egin dutenak markatu ditugu. Iaz gaztegiak ziren markatzeko», azaldu zuen. Behor batzuk umea egiteko daudelako egun batzuk itxarongo ditu abereak goiko larreetara eramateko.

Larraitzera joandakoek, animaliak ikusteaz gain, festa herrikoietan ohikoa diren ekitaldiez gozatzeko aukera izan zuten: dantzariak, aizkolariak, trikititza doinuak, bertsolariak, txiste-kontalariak... Hainbat postuetan, gainera, egarria eta gosea asetzeko aukera ederra izan zuten.



Hainbat ekitaldi egiteko aukera izan zuten atzo Larraitzera joan zirenek. Gipuzkoako Astozaleen Elkartek, esaterako, asto gainean ibiltzeko aukera eman zien haurrei —goian—. Anastasio Goitia amezketararen behorrrak nola markatzen diren ikusteko parada izan zuten, bestetik. Ezkerreko argazkian agertzen da bi egun bakarrik zituen moxala taldera gidatzen. Aberea datorren urtean markatuko du, aurtun gaztegia baita. Beasaingo eta Amezketako dantzariak —azpian— saioak eskaini zituzten goiz guztian zehar. I. GARCIA



▶ **hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak**

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

hilberria ▶

Maria Otegi Garmendia

ATZO hil zen, Zumarragan, 74 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

—Goian bego—

Amona, amama, kuttuna, joan zara baina zure jolasak eta irriak gurekin izango dira betirako. Eskerrik asko, muxu handi bat.



Zure bilobak: Ander eta Leire, Manex eta Beñat, Irate.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela GAUR, 19:00etan, Andra Mari Jasokundearen parroki elizan, GORPUA BERTAN dela egingo den hiletara.

ZUMARRAGA, 2006ko maiatzaren 2a



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Villabona. Jesusen Bihotza ikastola, 40. urteurrenean erakusketa bat egiteko, ikastolako argazkien eta dokumentuen bilketa egiten ari da, hilaren 10a arte. Informazio gehiago 943 69 23 22ra deituta. **Tolosa.** 13-17 urteko gazteentzat sexualitatearen inguruko ikastaroa. Izena emateko azken eguna, etzi. Hilaren 5ean hasiko da, ekainaren 2a arte.

HITZALDIAK

Tolosa. *Hacia una pastoral mas viva y renovada.* Jose Luis Lopetegik eskainitako saioa. 18:00etan, Santa Mariako sakristian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Etxebeste, J.M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.
Areso. Goizueta, F. Loidi ebexa. 112.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahatsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren erreposoa, elkarrizketak, albisteak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBH 1 eta 2ko ikasleek prestatzen duten saioa.
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street noise.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizkien erantzukizunik.

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...
hitza agurren tartea

Goizean goizetik ongi elikatuz

TOLOSA ▶ Laskorain Ikastolako 5. mailako ikasleek Gosari osasungarria programa burutu dute Zubietako Merka Bugati fruta eta barazki merkatuan



Goizean gosari osasuntsuarekin hasita, egun guztirako kemena ziurtatuta dute gaztetxo hauek. HITZA

ERREDAKZIOA

Eguna ondo hasteko gorputza behar bezala elikatzeari komeni da. Bitamina, karbohidrato, proteina, koipeki eta gatz mineralak ugari dituen gosaria oso egokia da osasunarentzat. Ordu batzuetan lo egiten —ezer jan gabe— egon ondoren, haurrek —eta helduek ere bai, noski— lan egin, ikasi, jolas eta kirola egin ahal izateko indarrak hartu behar dituzte goizetik.

Hori ikusita, eta Ingurumena asignaturan Elikadura eta osasuna gaia landu berria zutenaz baliatuz, Laskorain Ikastolako 5. mailako ikasleek, euren irakasleekin batera, Donostiako Zubietako Merka Bugati fruta eta barazki merkatu zentralerako Gosari osasungarria izeneko saioa burutu zuten lehengo asteartean.



Merkatuko arduradunaren azalpenak adi jarraitu zituzten. HITZA

Lehendabizi bertako arduradun batek merkatuaren funtzionamenduari azalpen txikia eman zien ikasleei. Fruta eta barazki gehienak Espainia, Hegoamerika, Afrika eta beste lekuetatik iristen dira Merka Bugatira kamioi handitan. In-

guruko baserriarrek ere eraman dituzte, eta arrakasta handia dute beren produktuek, berehala bukatzen baitira. Goizeko lauretan hasten dira bertan lanean eta seietatik aurrera dendariak joaten dira genero bila, goizeko bederatzietan dendak irekitzerakoan erosleei saldu ahal izateko. Gariai garaioko fruta eta barazkiak izaten dira bertan, eta lur azpiko solairuan hozkailu erraldoia dute generoa baldintza egokietan mantentzeko. Dendan fruta ez ukitzearen garrantzia azpimarratu zien arduradunak ikasleei.

Ondoren, hauek gosari ederra dastatzeko aukera izan zuten: laranja zukua, marrubiak, kiwia, melokotia, platanoa, esnea, kakaoa, ogia eta oliba olio. Dena ezin izan zutenek jan, sobratutakoa etxera eramateko bidea izan zuten, poltsa batean oparitutako sagarra, laranja eta informazio-orriarekin batera.

Gero salatzaile handizkarien postuak bisitatu zituzten, gutxitan ikusitako produktuaren arreta berezia jarri: romanesku, mango, mizpira, pomelo, sagar mota desberdinak... Horrekin batera merkatu honek birziklaketaren alde egiten duen apustuaren berri ere izan zuten ikasleek, eta hondatutako fruta eta barazkiak ez ezik kaxa mota desberdinak ere (egurrezkoak, kartoizkoak eta plastikozkoak) nola bereizten dituzten ikusi zuten.

Azkenik, ikasleek bisitari eta merkatuan dauden produktuei buruzko galdekizuna bete zuten, ikasgelan.

hitza argazki lehiaketa
bidali argazkiak
ARGAZKIAK NORA BIDALI
▶ P. elektronikoa: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
▶ Postaz: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza. Araba etorb 5, atzea • 20400 TOLOSA
Nahi baduzu, argazkiak Tolosako edo Leitzako HITZAren egoitzetara ekarri
OINARRIAK: www.tolosaldeko-hitza.info

Sari nagusia
BIDAIA paregabe bat zure neurria
2 laguntzetan 5 eguneko egonaldia, mantenu erdiarekin Asturiasen edo Costa Bravan
Bidaia Agentzia **bidaide**
www.bidaide.gruposercor.com
Ernioeoa, 6-behea • 20150 Villabona
Tel.: 943 692 693
bidaide@gruposercom.com

ZOKETA APARTAK
PARTE-HARTZAILE ETA BOTOEMAILE guztien artean HITZAren motxila eta mendiko gerriko poltsa zozkatuko dira